

AZKUNA ZENTROAK “TALUD MEDIODIA” JAVIER ARBIZUREN KOMISARIOTZA PROIEKTUA AURKEZTUKO DU KOMISARIO BERRIAK EKIMENAREN BAITAN

- **“Talud mediodía”** proiektuak Julián Pacomio, David Bestué eta Claudia Rebeca Lorenzo artisten lanak bateratzen ditu. Artista hauen praktikak konbergentzia eta argiaren ideiekin lotuta daude.
- Proiektua otsailaren 4an, ostirala, inauguratuko da, 18:30etan Lantegia 1 aretoan, David Bestué eta Claudia Rebeca Lorezoren piezen erakusketarekin.
- Larunbat goizaldean, otsailak 5, Julián Pacomio artistaren performancea izango da: **“Apocalipsis entre amigos o el día simplemente”**
- **Komisario Berriak Eusko Jaurlaritzak, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok, Tabakalera eta Artiumek komisariotzaren praktika garatzeko bultzatutako ekimena da.**

(Bilbo, 2022ko otsailaren 4a) Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok, Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentroa, *“Talud mediodía”* Javier Arbizuk (Lizarra, 1984) Komisario Berrien esparruan garatutako proiektua aurkeztuko du otsailaren 4tik 27ra. Zentroan egonaldia izan ondoren, Javier Arbizuk *“Talud mediodía”* proiektua aurkeztuko du Komisario Berriak programaren esparruan. Proposamenak Julián Pacomio, David Bestué eta Claudia Rebeca Lorenzo artisten lanak bateratzen ditu, haien praktikek zerikusia baitute konbergentzia eta argiarekin. Arbizuren lanak Bilboko toki ikoniko bat desegiteko prozesua du abiaburu: Artxandako jolas-parkearena. Hortik, **“ezpondaren”** eta **“eguerdiaren”** irudiak erreskuratzen ditu

eskulturatik eta performaziotik jarraitasunaren eta aldiberekotasunaren ideiak jorratzeko.

Leku bat (ezponda, lurrei elkarri eusteko ematen zaien inklinazioa) eta une bat (eguerdia, eguzkia zeruan gorago dagoenean, zerumugaren lerroarekiko igoera eta jaitsiera markatuz eta eguna bitan banatuz) izango dira deribari ekiteko hasierako irudiak, eta deriban **Pacomio**, **Bestué** eta **Lorenzoren** proposamenka Azkuna Zentrora egokitzeko modua aztertuko da.

«Komisario gisa nire zeregina izango da artistak entzutea, zaintzea, eta ebren praktiketarik ulertzen saiatzea. Urrats laburrak eginez, pentsatuz forma hartzen joango de erakusketa bati laguntzea. Artisten, komisarioaren eta instituzioaren arteko konfiantzaz eta elkarrekin egonda, besterik gabe», proposatu du **Javier Arbizu** komisarioak.

“*Talud mediodía*” proiektua zentroko programazio-ildoekin hizketan ari da, bereziki zuzeneko arteekin eta arte bisualekin. Proposamenak, gainera, testuinguru desberdinetako artistak jartzen ditu agerian, eta interesak partekatzen ditu Lantegia. Ideien laborategian garatzen diren sorkuntzari laguntzeko programei lotuta abian diren hainbat lan-prozesuarekin.

Erakusketa otsailaren 4an, ostirala, inauguratuko da 18:30etan hitzaldi batekin, non Javier Arbizu, David Bestué eta Julián Pacomiok parte hartuko baitute.

Sarrera doakoa da, webgunean izena eman ondoren.

“*Apocalipsis entre amigos o el día simplemente*” performancea

Proiektu honen esparruan, Julián Pacomiok otsailaren 5eko goizaldean “Apocalipsis entre amigos o el día simplemente” aurkeztuko du.

«Denbora asko daramagu goiz oheratzen. Eguneko jendea gara; gaua, beste batzuen kontua da. Apokalipsiaren zain gaude elkarrekin, denok, hemen. Noizbait, familiarra, intimoa, kezkarri bihurtuko da, eta amaiera era baketsuan, adeitsuan iritsiko da. Zerbait iluna azaleratuko da bizitza salatuz, eta harrezkero ezer ez da berdina izango;

oroitzapenek, ordukoek, ez dute gehiago garrantzirik izango; eta sendoenek bakarrik balioko dute, hau da, oraingoek. Ez gara sekula gehiago garaikideak izango, eta eguneko argia baizik ez da geratuko edo [...] kontua honek ez duela zentzurik, baina gainerakoak ez du zentzurik, baina gainerako heriotza da», deskribatu du sortzaileak.

6:30etan hasiko den performance honetarako sarrerak AZ Info-n eta azkunazentroa.eus-en daude salgai 6 euroren truke, 4 euro AZ txartelarekin (kontultatu prezio bereziak 65 urtetik gorakoentzat, 30 urtetik beherakoentzar, %33tik gorako desgaitasuna dutenentzat eta ikasleentzat).

Javier Arbizu (Lizarra, 1984)

Arte Ederretan lizentziaduna da Salamancako Unibertsitatetik. Arte Ederretako Masterra (MFA) egin zuen Kaliforniako San Francisco Art Institute-n.

Beka hauek jaso ditu, besteak beste: Fullbright, La Casa Encendida-ren Generaciones e Inéditos, Gestión Cultural MAEC-AECID, San Francisco Art Institute Fellowship, San Francisco Art Institute-ren Anne Bremer Memorial Price, San Francisco Art Foundation-en Murphy and Cadogan Award, Salamancako Unibertsitateko Fundación Vicente y García Corselas-en Segundo Vicente eta Guasch Coranty.

David Bestué (Bartzelona, 1980)

Artearen eta arkitekturaren, eskulturaren eta hizkuntzaren arteko erlazioetan interesa duen artista bisuala da, bere lan batzuetan ikusten den bezala. Banakako azken erakusketen artean *Rosí Amor*, Reina Sofia Arte Zentro Nazionalean (2017); *Tramas* Centro Centro-en (2019); *Miramar* Pols-en, Valentzian (2019); *De perder un nombre* Huesca-ko Diputazioan (2020); edo *Pastoral*, La Panera, Lleidan (2021).

Julián Pacomio

Artista, performerra eta komisarioa. Bere proiektu eszenikoen erlazioerik ez duten besteen materialen kopia, remakea, itzulpena egiteko eta jabetzeko idea aztertzen ditu. performer y comisario.

2018tik aurrera, Ángela Millano koreografoarekin batera lan egin du Asleep Images ikerketa-proiektuan, eta horren parte dira *“Make It, Don’t Fake It”* (2019) eta *“PSYCHO”* (2020) piezak. Besteak beste, João Fiadeiro (Portugal), Carolina Campos (Brasil), Lios Garay (Kolonbia), Daniel Pizamiglio (Brasil-Portugal) eta Annika Pannitto (Italia) koreografoekin lan egiten du. 2020an, *“No no no solo solo no”* performance-zikloa komisariatu zuen madrilgo INJUVEren Amadis aretorako, eta *“Contemplan una superficie inestable”* erakusketa, Ignacio de Antonio Antónekkin batera, La Casa Encendidan (Inéditos 2021 lehiaketa irabazi zuena).

Claudia Rebeca Lorenzo

Bilbon bizi den artista bat da. 2014an, Ikerketa eta Sormenaren inguruko Master bat egin zuen UPV/EHU (Bilbo), eta Kalostra arte eskola esperimentalean parte hartu du (Donostia), bai eta Paul B. Preciadok zuzendutako MACBAren Ikasketa Independenteen Programa ere (Bartzelona). 2017an, artista-egonaldia egin zuen NauEstruchen (Sabadell).

Hona hemen artista honen erakusketa pertsonal eta kolektibo berrienak: *“Cabeza, cuello, cabeza, Salón”* (Madril); *“Bi, dos, two”* Azkuna Zentroa (Bilbo); *“Neta Inu Ni, Torre de Ariz”* (Basauri); *“La primera piedra, Hangar”* (Bartzelona); *“Plieque, Okela”* (Bilbo); *“Ertibil, Sala Rekalde”* (Bilbo); *“Call 2017, Luis Adelantado”* (Valentzia); *“Herlieve, Ciudadela”* (Iruñea).

Komisario Berriak, komisariatuak garatzeko programa

Komisario Berriak Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Azkuna Zentroaren (Bilbo), Artiumen (Gasteiz) eta Tabakaleraren (Donostia) arteko lankidetzaproiektua da, eta komisariotzaren praktika euskal testuinguruan garatzea eta profesional berriak sortzea du helburu.

Deialdiak hiru beka ditu, zentro laguntzaile bakoitzeko bana. Beka horiek komisariotzaren barruko hiru lan-ildo espezifikori dagozkie, zentro bakoitzaren jarduerari lotutakoak.

Programa honen esparruan, Azkuna Zentroak – Alhóndiga Bilbaok kultura-kuradoretza baten aldeko apustua egiten du, eremu hedatua hartuz, eta ikuskera artistiko bat hedatzeko gai den komisariotza bat proposatzen du, erakusketak edo beste edozein gailu edo metodologiak diziplinen arteko igarotze-kapitulo gisa funtziona dezan, nahiz eta aldez aurreko ikerketaz eta ezagutzaz blai egon.